

# noaua

**Savasa, itxiera isila izan  
duen lantegi historikoa**

**Zumetatarren serigrafia bat,  
Kilometroak-en alde**

**Gure Esku Dago giza-kateari  
buruzko dokumentala,  
ostiral honetan Sutegin**

**Joseba Larratxe marrazkilariarekin solasean**

## Arkatzak mintzo bitez




# URDAIRA

## Sagardotegia

Urtarrilaren 17an, LARUNBATA  
**IREKITZEN DUGU!!!**

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

• **EDOZEIN ASEGURU IZANDA  
(OCASO, SANTALUCIA...)  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ  
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA  
EDO ERREZIBOIA EDO HORRELA KORIK EZ DUGU BEHAR,  
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

**943 36 21 63 (24H)**

• **BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK**  
• Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo  
beilatokia DOAN (gure eskutik)

[info@funerariagonzalez.es](mailto:info@funerariagonzalez.es) [www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

### 188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

## USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)





## Albiste iruditzen

# Danbor hotsak, ate joka

Zuriz jantziko zaizkigu ikasleak datorren astelehenean, urtarrilaren 19an. San Sebastian bezpera ospatuko dute eskola txikietan eta Udarregi Ikastolan, danborra joz. Ikastolan ekitaldiok programatu dituzte, biak Agerialdeko patioan.

### Urtarrilak 19, astelehena

■ 15:45 Haur Hezkuntzako ikasleen danborrada, Agerialdeko patioan.

■ 16:10 Lehen Hezkuntzako ikasleen danborrada, Agerialdeko patioan.



Astelehenean, arratsalde partean arituko dira danborra jotzen HH zein LHko ikasleak.

## Laburrean

### Urquijoren helegitea Udalaren aurka

UEMA-k berri eman zuenez, aktak euskaraz bidaltzeagatik helegitea aurkeztu du Carlos Urquijo Espainiko Gobernuaren ordezkariak, besteak beste, Usurbilgo Udalaren aurka. Kezkagarritzat eta eraso larritzat jo du UEMAK.

### 1956koen kinto afarian izena emateko epea zabalik

Oraindik bada denbora. Otsailaren 28an batuko baitira 1956an jaiotakoak Antxeta jatearekin. Izen emateko epea zabalik izango da otsailaren 21era arte. Apuntatzeko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 648 755 316 (Guillermo).

### Korrika Batzordea osatzeko bilera, urtarrilaren 23an

Urtarrilaren 23an, arratsaldeko 18:00etan Etu-meta AEK euskaltegian. "Herriko elkarte zein norbanako guztiei bertara etortzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu, guztiak izango zarete ongi etorriak!"

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.com

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pelio Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arnalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

## Izua... erreakzioak ere bai

Lehenik, ezohiko "maila goreneko" bilera batean, hainbat gobernuetako ordezkari bertsakartzen. Eta gero, kalean besotik helduta, kateatuta, Rajoy, Merkel, Sarkozy, Cameron... Eta hala, munduko 50 gobernu buru edo presidente zenbatu arte. Erabakitzeko eskubidearen aldeko giza-katean ote ziren pentsatzen hasia nengoen, edo Paris izanik, otsailaren 14a ote zen... Ikusten ari nintzena sinestu ezinik nengoen. Parisen ziren, besotik helduta bat eginik, duela egun gutxi jazotako erasoak arbuaitzen, adierazpen askatasunaren aldeko martxan, hedabideak bidegabeki itxi izan dituztenak. Egun batzuk lehenago izandako gertakari latzak gaitzesten, iragan ez oso urrunean ez dakit nik zenbat herrialdeetan bidegabeki sartu, herritarrak hil,

bizi baldintza kaxkarretan utzi eta ospa egiteko erabakia hartu izan dutenak, "beste" mundutik zetozeentzako harresiak eraiki edota herrikide dituzten migranteen aurkako hainbat neurri gogor hartu izan dituztenak... Eta besotik helduta lasai asko, Parisko tiroketa eta bahiketen harira, alerta egoeran egonik, egoera kudeatu behar dutenak kalean, bizi garen mundu hau mehatxatua dagoela erakutsi nahian. Bestelakorik saldu nahi izan diguten arren, igandean manifestatzera irtendako herritarrengandik aparte ziren behintzat, beste kale batean, zenbait hedabideek egunotan argitu dutenez. Herritarrengandik urrun, eta eskerrak.

Izua eragin zidan gobernu buruon keinuak. Besotik helduta, "denetariko" gobernu buruak. Inoiz garaitua izango ez den familia batuarena egiten, baina zeinen

aurrean? Erantzuna etorkizun ez oso urrunean ezagutuko dugulakoan nago. Eta ez dakit ezer onik ekarriko duen. Iraganera begiratzen hasita, Parisen gertaturiko antzeko erasoetatik ezer gutxi ikasi delakoan nago. Ez da indar handirik zuzendu, benetan halakorik berriro ez gertatzera. Ezin delako? Oraingoan ere, ahalik eta titular eraginkor eta azkarrenak ematen ahalegindu baietz?. Eta iragan astekoa bezalako erasoan aurrean, izua izurrite bihurtuko dute berriz; mehatxupean garela eta honenbestez, nola edo ahala, "beste" mundu horretatik babes-tu beharrak garela sinestarazi nahiko digute. Justifikatu nola? Aurreko asteko eraso larri horren atzean egon litekeen gatazka oso konplexua izanik, ikusiko da zertan geratzen den, aurreko igandean

besotik helduta, itxuraz jarrera bakezalea erakutsi nahi izan zuten gobernu buruen erantzuna.

Zalantzarik gabe, eraso larria izan da Parisetako. Oihartzun handia izan du munduan. Baina egun berean, asetzak, ostegun edo ostiral askotan bezala, beste hainbat herritar hil zituzten beste hainbat txokotan, atentatutan. Neroni ez naiz beste hildako hauei aurpegia jartzeko gai, ez non hil dituzten, ezta nolatan azaltzeko gai ere. Ez dut horren berri jasotzeko astirik edota Parisen jazotzen ari zena ezagutzeko pareko jakinminik izan. Hamar segundu baino ez dizkiote eskaini gainera, Parisi begira zeuden albistegian. "Gure" (zerbaite esatearren) mundu hau erasotzen ez duten artean, inguruotatik kanpo gertatzen denaren aurrean, beste aldera begiratzen jarraitzen dugulako?

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

## Ika-Mika

### Atxiloketak direla eta

Gaur Guardia Zibilak 16 euskal herritar atxilotu ditu. Atxilotu gehienak abokatuak dira, euskal presoan abokatuak, hain zuzen ere.

Gaurko egunez (urtarrilak 12) Madrilgo Entzutegian hastekoa zen epaiketan Marisa Alejandro herritarra ere auziperatuta dago. Epaiketa bertan behera utzi dute auzipetuetako 35 lagunetatik 19 abokaturik

gabe geratu direlako gaurko polizia operazioaren ostean.

Giza oinarriko eskubideen kontrako eraso oso larria izanda, Usurbilgo EH Bilduk adierazpen hau onartu du:

1.- Atxiloketa hauek Euskal Herrian irekitako bake, demokrazia eta askatasunaren bide berriaren kontrako eraso da. Estatuaren itxikeriak eta bortizkeriak euskal jendartearen

bake eta normalizazio politikorako borondate argia zapuztu nahi dute.

2.- Abokatuak funtzio berezia eta ezinbestekoa dute pertsonen giza eta defentsa eskubideak babesteko; are gehiago eredu demokratiko batean. Kasu honetan presoan eskubideen defentsan aritzen diren abokatuak atxilotu ditu Guardia Zibilak. Presoei dagozkien giza eskubideen urraketen lekuko zuzenak

dira eta abokatuaren atxiloketa hauek defentsarako eskubidea ere urratu dute.

3.- Estatu espainolak, berriro ere, bere izaera ez demokratikoa erakutsi du. Urtarrilaren 10ean milaka euskal herritarren aldarrikapenari jaramonik ez eta oinarriko eskubideak urratzearen aldeko apustua egin du.

Usurbilgo EH Bildu

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**Talde murriztuak eta pertsonalizatuak**

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa • Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak • Hizkuntzak

629944690  
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

**TAXI 24h**  
**ORAIN 8 PLAZA!**  
677 37 34 66 ] Joxe  
943 36 21 78 ] Etxabe

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

# Savasa, itxiera isila izan duen lantegi historikoa

**1** 966an sortu zen Usurbilen. Santiago Valverde Casasek eratu zuen eta etiketatzearen sektorean puntako lantegian bihurtu zen. Multinazional handiak ziren bere bezero nagusiak: Coca Cola, Pepsico, Texaco, Nestlé edota Benckiser. Europa zen bere merkatua nagusia, baina Hego Amerikan ere bidea zabal-tzen hasia zen. Usurbilgo enpresarenak egin du, ordea. Isilean eman den prozesua izan da. Zalaparta handirik gabe itxi dira Savasako atea. 2014ko albiste ilunetako bat izan da.

1966an eratu zen Savasa inprenta. Datorren urtean, beraz, eta irekita jarraituko balu, 50 urte beteko lituzke. Etiketen inpresioa izan da Savasaren lan eremu garrantzitsua. Eta azken hamarkadetan, erreferente ezinbestekoa izan da etiketatze-industrian. Bere lanak estimazio handikoak ziren Europa zein Hego Amerikako merkatuetan.

Enpresa itxita dago, baina bitxia bada ere, web orria oraindik martxan dago. Ez du, ordea, lantegiaren itxieraren berri ematen. Promozio kutsua dario web orrian den informazioari: "Savasaren, produktu berriak deskubritzeko gogoia partekatzen dugu. Nobedadei aurre hartzeko grina dugu, eta bide horretan, sortze-prozesuan partehartzea gustuko dugu. Azken urteotako garapenak inoiz baino konfiantza gehiago ematen digu, gure teknologiaren bitartez, hazten jarraitzeko".

## Hiru lantegi

Freskagarriak, elikadura, ura, garagardoa, garbiketako produktuak... Azken aldian, produktu mota horientzako etiketak izan dira landu dituztenak. "Savasako ekoizpen-egitura sendoa bat du, malguta, eta bezeroei ahalik eta modu onenean erantzuteko modukoa", hala irakurri daiteke Savasaren web orrian. "Bere hiru ekoizpen guneei esker, estrategikoki lokalizazio egokian daude, merkatu ezberdinetan berehalako erantzuna ziurtatu ahal izateko" (erredakzioan euskaratu dugu informazioa).

Hiru lantegien funtzioa honela deskribatzen da web orrian:



Etiketate sektorean, aitzindari izatera iritsi zen Savasa. Datorren urtean 50 urte beteko lituzke.

Usurbilgoa, "Frantziako mugan, Europako merkatuan zerbitzu azkarra emateko aukera eskaintzen digu".

Guadalajarako lantegia, "penintsularen erdian, Mediterraneoko merkatuaren aurrean, posizio estrategikoan".

Azkenik, Sao Paulokoa, "taldearen nazioarteko sinbolo dena, Hego Amerikako herrialde ezberdinetako bezeroak hornitu ahal izateko".

## Guadalajarakoaren gainbehera

2003an errotatiba berri bat ipini zuen Savasak Guadalajarako lantegian. 1,5 milioi euroko inbertsioa egin zuen eta errotatiba honen bitartez, etiketak jada moztuta ateratzen ziren, ontzietan pegatzeko pronto. Makina honek orduko 250.000 etiketa egiten zituela dio cincodias.com web orriko albisteak, eta garai hartan horrelako errotatiba gutxi zeudela munduan.

Hiru lantegiekin nahikoa zuela ere esaten da 2003ko artikuluan, Savasak ez zuela epe erdira lantegi berririk sortzeko asmorik, baina ez zuen enpresa herrialde berrietara zabaltzeko aukera bazterten.

2014ko udaberrian ordea, Guadalajarako lantegia itxi egin zuen Savasak. Hartzekodunen lehiaketa bidez, hain zuzen. Alimarket.es web

orriak eman zuen albiste honen berri. Informazio horren arabera, Savasak 2014ko udaberrian 150 langile zituen, 20 herrialde ezberdinetako bezeroak zeuzkan eta hiru lantegi zituen martxan: Sao Paolon, Guadalajaran eta Usurbilen.

Usurbilen behintzat, Savasarenak egin du. Isilean itzali dira makinak. Jada ez dira lantegiko argiak pizten, eta hutsik dago lehen autoz gainzka egoten zen aparkalekua.

## Starpack saria jaso zuen 2011n

Urteetako esperientzia zuen Savasak. Eta esperientzia hori aitortua zitzaion sarien bitartez. Azkenetakoa izango zen 2011n jaso zuena: The Starpack Awards 2011 saria. Drystick izeneko etiketatze berritzailearengatik urrezko izar bat jaso zuen Savasak. Eta saria eman zioten, teknologia hau bereziki egokia ikusten zutelako ura, garagardoa eta freskagarrien merkatuan.

Erresuma Batuan banatzen diren sariak dira Starpack izenekoak, eta bilgarrien sektorean estimazio handiko sariak dira, berrikuntza, bikaintasun eta diseinu irizpideen arabera banatzen direlako.

**ARTZABAL**  
Baserría - Jatetxea  
Puntapax 8, Usurbil  
943 36 91 39  
[www.artzabaljattetxea.com](http://www.artzabaljattetxea.com)

EGUNEKO MENUA  
KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK  
TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**LOGOPEDIA**  
Haurrak / Nerabeak / Helduak  
TERAPIA MIOFUNZIONALA

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374



# PSE-EEren ustez, arlo sozialean murrizketak dakartza udal aurrekontu berriak

2015eko udal aurrekontuen aurrean, PSE-EEK osoko zuzenketa aurkeztu zuen. NOAUA!ra igorritako balorazioan, Ricardo Crespo zinegotziak aurrekontuaren aurkako bozka arrazoitu nahi du. Bere ustez, “babes sozialean murriztuko ez duen udal aurrekontua behar dugu”, eta horregatik, Bilduren aurrekontu proposamenaren aurka bozkatu zuen PSE-EEK, abenduaren 22an egin zen ezohiko udalbatza plenoan.

Politika sozialaren arloan, Bilduren gobernuak egin nahi dituen murrizketak erabat mingarriak iruditzen zaizkio. Ongizatean eta prestazio sozialetan, udal gobernuak murrizketa politikarekin aurrera doala uste du PSE-EEK, eta oso kezagarria iruditzen zaio hori Ricardo Crespo zinegotzi sozialistari. “Honek adierazten du herritarrei gehien eragiten diguten politikak ez direla euren lehentasun”.

## Arlo sozialaz

PSE-EEK aditzera eman duenez, “etxeko atentzioaren zerbitzuan, 11.500 eurotan murriztu du diru partida hori, eta iazko joera sendotzen du. Zerbitzu honek 2013an 39.000 euroko ajustea pairatu zuen, eta 2014ko murrizketekin 95.500 eurotan finkatu zen. Orain (2015eko udal aurrekontua indarrean sartzen denean) partida 84.000 eurotan geratuko da”.



Ricardo Crespo PSE-EEko zinegotziaren balorazioak jaso ditugu orri honetan.

### Ricardo Crespo, PSE-EE

**“Etxeko atentzioaren zerbitzuan, 11.500 eurotan murriztu du diru partida, eta iazko joera sendotzen da. Zerbitzu honek 2013an 39.000 euroko ajustea pairatu zuelako”**

## Eguneko Zentroa

Eguneko Zentroari eskainitako partida 5.000 eurotan handitu da, baina “iazko urtean, murrizketa handia egin zuen Bilduren gobernuak, 14.000 eurotan murriztuz”.

Emergentzia sozialetan ere, 10.000 euroko beherakada eman dela dio PSE-EEK. “Ez dugu uste gizarteak pairatzen duen egoera ekonomiko-laboralarekin onargarria denik horrelako murrizketarik”. Sinesgaitza egiten zaio PSE-EEri, “beste kuestio batzuetarako dirua egin badagoenean”.

## Dirulaguntza politikaz

Bilduk murrizketak egiten jarraitzen du oinarrizko arlo batean, babes sozialean, “eta bere ingurua laguntzeko duen subentzio politikarekin erratuta segitzen du”. Hala dio Ricardo Cresporen alderdiak. “Bilduk bere ingurukoei subentzioak ematen dizkie denon diruarekin, diru publikoaren erabilera txarra eginez, bere jendearentzat gobernatzen duela baieztatzen dator, eta interes orokorra ez zaio inporta”.

Azken argudio hau bi adibide hauekin osatu du alderdi sozialistak: Udalbiltzari 10.000 euro bideratuko zaizkio (“Bilduko alkateen erakundeari”), eta Eudeli berriz 1.500; eta bestetik, preso familiarrei 12.000 euroko partida emango zaie. “Baina bai ulertzen dugula kilometroak jaiari egin zaion 10.000 euroko ekarpena, Usurbilen ospatuko baita hurrengo edizioa”, Ricardo Crespok adierazi bezala.

## Eskola publikoaz

Alderdi sozialistak eskola publiko baten aldeko egitasmoa berretsi du. “Udalari lur eremu baten erreserba egiteko eskaera egiten diogu berriro, etorkizunean eskola publiko bat egon dadin Usurbilen, eta horrela herritar batzuk bere garaian egin zuten eskaerari erantzun ahal izateko. Ekimen honek ez luke kosturik izango udaletxearentzat eta ikastela ez litzateke kaltetua izango”.

## Poltsa konpostagarrien erosketa

Atez ateko bilketaren aurkako jarrera berretsi nahi du Usurbilgo PSE-EE alderdiak. “Nahiz eta onartu, bozketa bidez, sistema honen alde izan zela emaitza, duela urte asko ari gara eskatzen poltsa konpostagarrien erosketarako 10.000 euroko partida. Orain arte, Udalak soilik ordenantza egokitu du, erabili nahi dituzten herritarrek erabili ahal ditzaten, baina gero ez ditu errazten”.

## Eskualdeko garapen agentzia

Udal aurrekontu proposamenaren bada eskualdeko garapen agentzia bat sustatzeko diru partida, eta hori ere kritikatzeko du PSE-EEK, “helburua koalizio abertzaleak gobernatu duen txiringitza sortzea da, eta horrela pluralitatea mugatu”.

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## Teknologia berrien erabilera osasuntsuari buruzko ikastaroa



Adingabeek aurki ditzaketen arriskuak eta hauen ondorioak aztertzea izango da ikastaro honen helburua.

Urtarrilaren 26an, 18:00-20:00 artean Po-txoenean. Teknologia berrien erabilera osasuntsu eta arrisku gabekoa izango da formazio saioko mintzagai nagusia. Hitzordua, Pantallas Amigas-eko Araiz Zalduegik bideratu du.

"Formakuntza saio honen helburua, internet eta teknologia berriak erabiltzerakoan adingabeek aurkitu ditzaketen arriskuak eta hauen ondorioak aztertzea izango da. Honekin batera, adingabeek babesteko sustatu ahal diren prebentzio-neurrietaz aholku emango da", antolatzaileek berri eman dutenez.

Formazio saio hau, Usurbilgo Udalak onartua duen Mendekotasunen Prebentziorako I. Udal Planaren baitan kokatzen da.

### Guraso, tutore eta hezitzaileei zuzendua

Teknologia berrien erabilera osasuntsua sustatu nahi da herriko ikastetxe eta herritarren artean, formazio saio honen bidez. Guraso, tutore legal edota hezitzaileei zuzendua egongo da.

### Izen-ematea

Izen emateko, apuntatu aurrez doan bide hauetatik: [gizartelangilea3@usurbil.eus](mailto:gizartelangilea3@usurbil.eus)  
Telefono zenbakia: 943 377 110

### Urtarrilaren 22an, Guraso Eskolaren saio berri bat

"Jarraibide egokiak nahi ditugu baina topatzen ez ditugunean, ingurukoengana jotzen dugu eta aholku horiek sarritan ez dira lagungarri izaten". Antzeko kezka dituzte Hitz Aho guraso elkarteak. Eta kezka horiek arintzeko, ikastaro batzuk antolatu dituzte. Seme-alabekin elkar ulertzeko xedez antolatu dira ikastaro hauek. Urtarrilean eman go zaie jarraipena eta oraindik bada izena emateko aukera.

### Urtarrilak 22 osteguna

- 17:00etan, Udarregi ikastolan.
- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1-4ko haurren gurasoei eskainiak.
- Irakaslea: Nerea Mendizabal psikopedagogo.
- Izena emateko e-posta bat idatzi, helbide honetara: [hitzaho@udarregi.com](mailto:hitzaho@udarregi.com)

### Gurasoentzako hitzaldia Zubietako Kaxkapen

"Haurren beldurrak nola kudeatu" izeneko hitzaldia antolatu du Zubietako Guraso Elkarteak. Frontoi atzealdeko Kaxkape egoitzan izango da, eta Nerea Mendizabal psikopedagogoak bideratuko du saioa.

### Urtarrilak 22 osteguna

- 14:30ean, Kaxkape egoitzan.
- Irakaslea: Nerea Mendizabal psikopedagogo.

## Zumarteko ikasleak, Eguneko Zentroa alaitzen



Eguberrietan izan zen. Zumarteko ikasleak Eguneko Zentroan izan ziren, eta kontzertu berezia eskaini zieten bertako aiton-amonei. "Ekitaldi xume baina hunkigarri eta partehartzailea izan zen, ikas-

le eta aiton-amonek musika jo eta kantatu elkarrekin egin zuten", Zumartetik aditzera eman digutenez. "Eskusoinu, pianojole eta txistulari bakarlarriak, eta biolin-gitarra-flauta-klarinete-eskusoinu



taldeak abesti desberdinak jo zituzten eta Hator -Hator abestia denok elkarrekin jo eta kantatuz amaitu zen kontzertu txikia".

Ez da lehen aldia. 2013ko abenduan hasi ziren kontzertu hau es-

kaintzen. Bigarren edizioa izan da argazkietan jaso duguna. Eta aurrerantzean ere emanaldi honekin jarraitzeko asmoa dagoela adierazi digute Zumarte Musika Eskolako kideek.

## Igandean, elkartasun agerraldia



**Marisa Alejandro eta beste 34 kideren aurkako auzia bertan behera geratu da. Hasier Arraizen atzean ageri da Marisa, Sorturen ekitaldi batean.**

**M**arisa Alejandro eta beste 34 auziperatuei elkartasuna adierazi eta aste hasieran, Madrilgo Espainiako Auzitegi Nazionalean abiatzeko zen epaiketa bertan behera uztea eskatzeko, agerraldia deitu du herritar talde batek igande eguerdi honetarako, 12:30ean Mikel Laboa plazan.

"Madrileko Auzitegi Nazionalean 04/08 sumarioan epaituko dituzten 35 euskal herritarrei, horien artean Marisa Alejandro herritarra, elkartasuna adierazteko agerraldi berezia egingo dugu", iragarri dute deitzaileek. Herritar oro gonbidatzen dute hitzordura. "Ahalik eta herritar gehien gerturatzea eskatzen dugu, argazki erraldoi bat osatzeko", gonbidatu dituzte herritarrak.

### Larunbatean, Donostian

Igandeko agerraldiaz gain, izango dira deialdi gehiago ere. Azken polizia operazioa salatze-ko hainbat gizarte eragile, alderdi politiko eta

sindikatuak manifestazioa deitu dute larunbat honetarako, 17:00etan Donostian. Mobilizazioa Antiguoko tuneletik abiatuko da.

Astelehen honetan Madrilgo Espainiako Auzitegi Nazionalean hastekoa zen Ezker Abertzaleko 35 lagunen (tartean, Marisa Alejandro usurbildarraren) aurkako epaiketa bertan behera utzi zuten, goiz berean Guardia Zibilak 16 lagun, horien artean, auziperatuen defentsako hiru abokatu (Amaia Izko, Haizea Ziluaga eta Eukene Jauregi) atxilotu ondoren. ETArri babesa ematea eta delitu fiskalak egozten dizkiete. Auziperatuen defentsak polizia operazioa gertatu eta berehala eskatu zuen epaiketa bertan behera uztea. Eta azkenean hala gertatu zen. Noiz hasiko den zehaztu gabe.

Epaiketa, Seguran 2007ko urriaren 4an izandako polizia operazioaren haritik dator. Ezker Abertzaleko 23 lagun atxilotu zituen polizia espainiarrak, tartean, Marisa Alejandro usurbildarra.



Nahikoa dela, aski dela eta errepresioa eten beharra dagoela adierazi zuten herritarrek, astelehen goizeko atxiloketen harira, iluntzerako urgentziaz Sortuk Mikel Laboa plazan deitu zuen elkarretaratzean. Atxiloturiko 16 euskal herritarrak aske uztea eskatu zuten usurbildarrek, eskutan "Je

suis basque. #AtxilotuakLibre #AtxilotuakAskatu" zioten txartelak zituztela. Parte hartu zuten herritarren artean zegoen, Ezker Abertzaleko 35 kideren aurkako epaiketa bertan behera geratu ostean, Madriletik heldu berria zen Marisa Alejandro usurbildarra.

### 328raino jaitsi da langabetu kopurua

Kalean benetan islatzen ote den beste kontu bat da, baina Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleratu berri dituen datuen arabera, Usurbilgo langabezia-tasak nabarmen egin du behera. Abenduan 328 langabetu zenbatu zituzten udalerrri honetan, azaroan baino 23 langabetu gutxiago eta duela urtebete baino ia 40 lagun gutxiago. 366 langabeterekin agurtu zuen Usurbilek 2013a. Beherakada orokorra izan da, bai gizon zein emakumeen artean, eta adin tarte ezberdinetan. Kontratazioak halere behera egin du Usurbilen. 285 lan kontratu erregistratu ziren abenduan, azaroan baino 24 gutxiago. Ia denak, 263 aldi baterako. 211 zerbitzuetan. 134 lan kontratu emakumezkoenak, 151 gizonzkoenak.

Buruntzaldean, Andoainean izan ezik ere lanik gabeko herritar kopurua behera abenduan. Baita Gipuzkoan ere. 900 langabetu gutxiago urte amaieran; 46.007. Azaroan, 46.940 ziren.

### Hitzordu aldaketak, Gaztetxekoen asteburuko agendan

Hariak ez du etenik Gaztetxean. Ekimen gehiago antolatu dituzte asteburu honetarako, baina adi, azken orduko zenbait aldaketa egon baitira hitzorduetan. Iganderako, urtarrilaren 18rako "La Esclusa" antzezlan antolatua zuten. Egunbete aurreratu dute ordea emanaldia; larunbat gaueko 22:00etara. Bezperan, ostiral gauean bestalde, kontzertu gaua Gaztetxean, Bordeleko eta Euskal Herriko hiru talderekin. Hona hemen, "Ez dadila haria eten!" aldarriean, asteburu honetarako Gaztetxekoen ekimenen agenda eguneratua:

#### Urtarrilak 16, ostirala

23:00 Kontzertu gaua:

Le Cercle des Mallissimalistes (Bordeaux), Joseba Irazoki (Bera) eta Sofa (Zarautz).

#### Urtarrilak 17, larunbata

22:00 Antzerkia: "La Esclusa". Sarrera: 3 euro. Aktorea: Ana Plaza.

Edukia: "16 urte preso, biharamunean aske geratuko da, kondizionalarekin. Espetxeko bere azken gaua da La Esclusa-ren eszenatokia, kanpoan eta barruan beldurrez eta itxaropenez urtzen diren ordu luze horiek. Gau horretan argitara ateratzen dira 16 urtez bahitutako bizipenak".



# Zumetatarren serigrafia, Kilometroak-en alde

Jose Luis eta Usoa Zumeta artista usurbildarrek bere ekarpena egin nahi diote Udarregi ikastolari. "Horretarako, 150 serigrafia original egin dituzte, eta 150 eurotan salduko da bakoitza. Diru hori ikastolarentzako izango da, eraikin berriaren mailegua ordaintzen eta frontoia estaltze laguntzeko balioko dute", Kilometroak 2015 komunikazio bulegotik aditzera eman digutenez.



Usoa Zumeta arduratu da aitaren koadroarekin serigrafiak egiteaz.

Serigrafiak eskuratzeko hainbat modu daude. Ikastolako idazkaritzan eskuratu daiteke, eta erreserbak telefonoz egin (943 36 12 16), emailaz eta Gattunk dendan.

Serigrafia bera azaroaren 29an osatu zuten Zumetatarrek Udarregiko ikasleen laguntzaz. "Kilometroen leloa eta irudia aurkezteko ikuskizuna egin genuen, eta ekitaldi horretan

bertan margotu zuten ondoren serigrafia bihurtu den 2x7,5 metro koadroa".

## Koadroa, Udarregiko jangelan ikusgai

Serigrafia bihurtu den koadroa Udarregi ikastolako eraikin berriaren ipini dute ikusgai, jangelan hain zuzen.

## Prozesua, iruditan

Zumetatarrek lan egin bitartean, argazkilariak eta bideo-gileak lanean jarri zituzten Kilometroak batzordeko kideek. Argazkian estekatu dugun QR kodearekin ikus daiteke bideoa. Bestela, [www.kilometroak.eus](http://www.kilometroak.eus) helbidean topatuko dituzue estekak.

## Ikastolaren sorrerari buruzko bideoa

Usurbilgo Udarregi ikastolak antolatuko du aurtengo Kilometroak jaia. Baina nola sortu zen Udarregi ikastola? "Hainbat herritarren lekukotzak jasotzen ari gara, eta pieza osoa aurrerago argitaratuko dugu". Bien bitartean, aurrerapen bideo bat ikusgai da [kilometroak.net](http://kilometroak.net) web orrian.

## Laster hasiko da matrikulazio kanpaina

Laster abiatuko da 2015-2016 ikasturteko matrikulazio kanpaina. Otsailaren 2tik 13ra izango da (biak barne) eta epe horretan egin behar ko dira izen-emateak ikastolako idazkaritzan.

<http://www.noaua.com>

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere [noaua.com](http://noaua.com) web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean...  
Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

MERKATU TXIKIA

noaua usurbildarren zerbitzura

# Joseba Larratxe, irudi sortzaile

**M**arrazki bidezko kontakizuna miresten du. Txikitatik, eta nola gainera. Odolean darama. Goiz jabetu zen zuen dohainaz eta jabetu zen unetik, etenik gabe landu du, afizioa ofizio bihurtzeko bidean jartzearino. Egilea nor zen jakin gabe, zuetako batek baino gehiagok bere lanak ezagutu dituzue, Argiako edo Nabarra aldizkari-ko irakurleok esaterako. Edota laster, Gaztezulo eskuartearen hartzen duzuenok bere sormen lanaz gozatzeko aukera izango duzue. Artista bikaina eta ekintzaile nekazina dugu Joseba Larratxe, Usurbilen bizi den irundar gaztea.



Irundarra sortzez, Usurbilen bizi da Joseba Larratxe.

**Nola aurkezten duzu zure burua, marrazkigile, komikigile, ilustratzaile moduan?**

**Joseba Larratxe:** Marrazkilari bezala. Komikilari edo ilustratzaile hitzek badituzte, neure esparrua edo lanbidea mugatzen duten konnotazio batzuk. Azken finean, Euskal Herrian, gaur egun inor ezin da bizi komikigintzatik soilik. Beti jo behar izaten dugu ipuinak ilustratzera edo artikuluetak marrazkiak egitera. Orduan, dena barne hartzen duen hitz bat esatekotan, marrazkilaria naizela esaten dut.

**Etiket datorkizu marrazteko zaletasuna?**

Geneetan daramat komikigintzarako zaletasuna. Txikitan,

## JOSEBA LARRATXE

**“Marrazketa bigarren mailako afizio moduan ikusi izan da beti. Pena da, jendearentzat bere burua adierazteko erreminta erabilgarri bat dela uste dut”**

lokartzerakoan ipuinen orde, Asterix eta Obelix irakurtzen zigun aitak anaiari eta bioi. Nerabe ginela aitak Baionan dagoen komiki denda oso on batera eramaten gintuen komikiak erostera. Horrela garatu dugu zaletasuna. Gainerakoan, marraztu, txikitatik denok bezala marraztu izan dut. Gertatzen dena da nik ez dudala utzi,

afizioarekin jarraitu dut.

**Lehen marrazki haiek nolakoak ziren?**

8-9 urterekin izan zen, ikastolen arteko lehiaketa batean komiki bat egitera behartu gintuzten eskolan. Neuretzat errebelazioa izan zen. Oso une polita izan zen konturatzea, lapitzarekin nik nahi zuena konta nezakeela. Eta gainera, lehiaketa hori irabazi nuen. Animo handia izan zen.

**Unibertsitatean, kolaborazio lanekin hasi zinen. Nola eman zenuen jauzi hori?**

Ez dut diseinua edo arte ederak ikasi. Arkitektura ikasi dut. Familian arkitekto asko ditugu, hori ikusi dut etxean

txikitatik eta nahiko inertzia sartu nintzen karrera horretan. Pena ematen zidan marrazketarekin zerikusi osoagoa zuen zerbait ez aukeratzea. Arkitektura ikasi baina marrazteari ez niola utziko erabaki nuen. Karreran nengoela suertatu zitzaidan, lehenengo kolaborazio profesionalagoak egiten hasteko aukera, Berriak kaleratzen zuten Matraka gehigarrian, Nabarra aldizkarian, Euskal Herriko komiki txapelketak... Nik uste denez, aurkeztu nintzela bolada batean. Esperientziotaz asko ikasi nuen. nahiz askotan topatzen nuen neure burua, matematiketako klasean apunteak hartzen ariko banintz bezala, isilpean, astekarirako umore zintak marrazten.

## “Ikastea garrantzitsua da, baina baita inizatiba izatea ere”

**Afizioa noraino iristen den...**

**Joseba Larratxe.** Orain ari naiz afizioa ofizio bihurtzen. Ez banuen uztartze hori egin, ez nuen lortuko. Azken aldi askotan esaten diot neure buruari, eskerrak egin dudane bide paralelo bat, ze arkitektura oso gaizki dago. Krisia eraikuntza-

tik hasi zen, lagun piloan dut karrera bukatuta lanik gabe. Nik gutxienez gutxi bada ere zerbait egiten dut. Ikastea garrantzitsua da baina baita inizatiba izatea ere. Komikigintzan neure gauzak egin ditut nahiz eta inork eskatu ez. Eta horrela sortu zaizkit aukera gehiago.

**Kolaborazioak, erakusketak antolatu... Asko mugitu zara.**

Garbi zuena zen, neure bila ez zela inor etorriko. Aldizkarietako kolaborazio lanez gain, lagun batzuekin web komiki bat egitea erabaki nuen: Kakalardo.com. Bi ale egin genituen, inork eskatu gabe eta

Interneten zabaldu genuen muxutruk. Hortik atera zaizkit gerora Xabiroi aldizkari kolaborazioak. Kakalardo ez banuen egin ez nuen gainerako guztia lortuko. Erakusketek ere irabaziak baino lan gehiago ematen dute. Baina dena da ikusgarri egitea lana.



# le eta ekintzaile



Bere lana hobeto ezagutzeko: [josebalarratxe.tumblr.com/](http://josebalarratxe.tumblr.com/)

**Zure sormen lanak eskutan, ze ezaugarri komun dituzte?**

**Joseba Larratxe.** Normalean egiten ditudan komikietan ahalik eta gai unibertsalenak jorratzen saiatzen naiz. Neure nahia komikiak mundu osoak irakurtzea da. Noski, lehenbizi euskaraz egingo ditut, baina gero, komiki hori ahalik eta gehien zabaldu nahi nuke. Horregatik, askotan komiki mutura jotzen dut. Marrazkiari dagokionez, geroz eta garrantzia handiagoa ematen diot koloreari. Trazuari dagokionez, tinta emateko pintzela erabiltzen dut. Modu anarkiko batean mugitzen da baina horrek ere eragiten du trazu solteago, freskoago bat. Geroz eta garrantzia gehiago ematen diot trazuaren adierazkortasunari. Sumatu nahi dut marra horien atzean esku bat dagoela.

**Irudiak geroz eta garrantzi gehiago duen gizarte honetan, komikia ere indar hartzen ari da?**

Esaten da komikia dela krisian sartu ez den arlo bakarra. Sentsazioa izan dut komikia sozialki prestigioa hartzen ari dela pixkanaka. Autore bai idazle, egile gehiago ari dira hurbiltzen komikira ikusten dutelako adierazpide modu bat

## JOSEBA LARRATXE

**“Gaztezuloren 2015eko 11 aleetan zehar bi orrialdeetako komikiak ateratzen joango naiz”**

oso bersatila dena, kakotsa artean merkea. Modu merke bat irudi bidez istorio bat kontatzen. Horri gehituta, sozialki ere prestigio bat hartzen ari dela baliteke aurrerantzean gauza onak ateratzen jarraitzea.

**Sortze lan hori transmititzen arituzara Tolosako komikigintzako tailer batean. Zer moduz?**

Tailer txiki bi edo egin ditut hurrekin, baina tailerra marrazketa klasean bihurtzen zen. Tolosakoa aldiz, helduei zuzenduriko lehen tailerra zen. Oso gustura geratu naiz, oso arlo ezberdinetako ikasleak etorri ziren; idazlea, arte ederretako ikasle bat, komikigintzan hasi berri zen bat... Hauekin bai garatu ahal izan dut, komikiaren teoria nik nahi nuen bezala. Aurrez irakurriak nituen egile oso onen liburuak. Liburu haietan irakurtzean hainbeste ideia ordenatu zitzaizkidan komikiei

buruz, gogoia izan dudala hori jendeari adierazteko. Tailerrek komikigintzaren barrunpeak nola funtzionatzen duten adierazteko aukera izan dut.

**Testua eta irudia uztartzean gaztarka sortu ohi da. Zuk nola bizi izan duzu?**

Orain arte ondo. Lan egin izan dudana gidoilariarekin ondo moldatu naiz. Errespetu handia diot gidoilari batek egiten duen lanari. Berea da lehenbiziko ideia. Baina era berean hoberen pasatzen dudana unea da haiek ere niri tartea eta askatasuna ematen didatenean. Batzuetan gehiago izan dut eta besteetan gutxiago.

**Urte berrirako proiektuak...**

Gaztezuloren 2015eko 11 aleetan zehar 2 orrialdeetako komikiak ateratzen joango naiz. Eta egia esan gustura nago, neure marrazki eta gidoia da eta aspalditik buruan nuen okurrentzia bat marrazteko aukera ematen dit. Xabiroi argitalpenerako beste kolaborazio bat ere egingo dut, Yurre Ugarte gidoilariarekin. Noizbehinka Argia aldizkarirako egiten ditut ilustrazio batzuk. Eta saiatuko naiz berriro tailerren bat ematen.

## Parisko atentatuaren harira, sentsazio kontraerriak

Parisko tiroketaren haririk, marrazkigielontzat egun beltzak izaten ari direla aipatzen zenuen sare sozialean egunotan. Zer sentiarazi dizu?

**Joseba Larratxe.** Sentsazio kontraerriak sortu dizkit. Marrazkilari batzuk akabatzeak jota, zur eta lur, etsipen eta haserre handia eragiten du. Lehenbiziko hausnarketa; zeinen iraingarriak eta krudelak egin zaizkien marrazki horiek. Alde ona begiratzekotan, ze potentzialtasuna duen marrazketak. Baina beste alde batetik; estatu islamiko delako honek egunero akabatzen du jende piloia. Izugarritzko sarraskiak egiten dituzte eta krudelkeriok inor ez dute asaldatzen.

**Autozentsurara jotzen ari ote gara? Garai zailak al dira marrazkigintzarako?**

Horretan euskaldunok eskarmentu handia dugu. Dena den, marrazkia egiten duzun hedabidearen zabalkundearen arabera izan daiteke hori. Hedabide txiki batean askoz modu libreagoan esango duzu burutik pasatako aste-karia handiena. Zabalkunde handiko hedabide batean mingainari kozka egitea askoz errazagoa izango da.



Joseba Larratxe, bere bi lanekin.

# Usurbil, Euskal Herriko klub arteko finalean

Etxekoak, nazio mailako pilotari talde onenean bilakatzeko bidean ditugu. Estreinakoz zortzi talderen artean jokatu den Euskal Herriko Klub Arteko Pilota Txapelketa amaierara heldu da. Final handia, igande honetan, urtarrilaren 18an jokatuko da Amezketan. Usurbildarrak finalistak, Galdakaokoekin batera.

## Zer nolako finala aurreikusten duzue?

**Xabier Sancho:** Denek esaten digute faboritoak gu garela. Aurkariak ordea nahiko gogorrek dira, ez dakigu beste taldeek nola jokatuko duten. Gu normalean jokalaria taldea etxetik osatuta joaten gara eta ez dugu ezer aldatzen, baina badakigu badirela badaezpada takoak jantzita joandako taldeak, nahastera jokatu nahian.

## Estrategia, aurkariak ez eza-gutzeko noski. Emozio handia egon da txapelketan?

Bai. Gurekin batera, Uharte, Iruñeko talde bat zen hasieran txapelketako faboritoa. Baina Uharte lehenengoan kanporatu zuten. Partida irabaziko zutela ziur ziren, baina neurketa bat gaizki jolastea nahikoa izan zen. Beste neurketan taldea aldatu zuten. Ustez finalera helduko zirenak, azkenean haiek kalera. Emozioa eta xarma badu txapelketa honek. Lehen aldiz antolatu da. Orain arte pilota munduan sartu ez diren babesle piloa aurkitu dute. Denontzako ere mesede.

## Zer moduzko txapelketa irudituz zaizue?



Xabier Sancho banakako partidaren aurretik da, igande honetan, Amezketako Larrunari pilotalekuan.

### XABIER SANCHO

*“Denek esaten digute faboritoak gu garela. Aurkariak ordea nahiko gogorrek dira”*

Txapelketa pribatuetan parte hartzeraz ohituak gaude. Antolatzaileak asko mugitu dira. Inoiz ez dute egin web orri bat, orain egin duten moduan, argazkilari bat dute neurketetako argazkiak igotzen, partidak twitterretik jarraitu daitezke, eta uneoro egiten dituzten ekimenen berri ematen dute. Batez ere pertsona batek lan asko egin du.

### Zerk ekarri zaituzte finalera?

Oso talde orekatua dugu. Lau t'erdian bada talde kide bat oso ondo jolasten duena, nik buruz burukoan

jokatzen dut. Binakako taldeak lehenengo partida galdu arren, lau t'erdikoa eta buruz burukoa irabazi genuenez, aurrera jo genuen. Finalurrekoan lehen partida galdu zen. Azken bi neurketak irabazi behar genituen, baina partidak erraz joan ziren, uste baino hobeto. Lesio bat egon zen eta kide batek ezin izan zuen jokatu.

### Usurbilgo taldean herritar bakarra zara. Zerk erakarri ditu gainerako talde kideak zuen klubera?

Azken urteotan Usurbilen taldearen maila handitu da. Ikusi dute giro polita, naturala dugula klubean. Beste klub batzuetan badakigu liskarrak egon direla. Arazorik ez dugu izan oraingoz, eta ez izatea espero dugu. Egia da, jende gehiagok adierazi digula etortze-

ko nahia. Gai honengatik kritika bat edo beste ere jaso izan dugu. Hasieratik esan dugu gu ez garela inoren bila joan, etorri badira be-  
raiek nahi izan dutelako izan dela. Klubaren maila ona bazen ere, jokalaria hobetzen lagundu dute.

### Finala, igandean Amezketan

Urtarrilak 18, igandea. 17:00etan Amezketako Larrunari pilotalekua.

■ Finalistak: Adiskide (Galdakao)-Usurbil

■ Neurketak:

Banaka lau t'erdian:

Legorburu-Urbieta

Banaka frontoi osoan:

Atutxa-Sancho

Binaka: Elezkano-Galarza

Quina-Gorrotxategi

# Mendi bizikleta probarako izen ematea zabalik

Urtarrilaren 25ean ospatuko den Irisasi BTT 2015 "Hotzak akabatzen" probarako izen emateak zabalik segiko du hilaren 23ra arte, kirolprobak.com atarian. Prezioak; 15 euro federatuek, 18 euro federatu gabekoek. Egunean bertan, 22 euro guztiek. laz beza-

la, bi ibilbide egongo dira aukeran; bat motza, 30 kilometro ingurukoa, bestea luzea 40 bat kilometrotakoa. Aldaketak egon daitezke halere, antolatzaileek ohartarazi dutenez: "ibilbidea aldatu daiteke, eguraldiaren baldintza eta mendiaren egoeraren arabera". Proba goizeko

9:30etan hasiko da. Frontoia izango du abiapuntua eta helmuga.

Parte hartzaile guztientzat opariak izango dira helmugan: Craft markako kirolerako kamiseta eta Saizar botila bat sagardo. Honez gain, dozenaka opari zozketatuko dituzte parte hartzaileen artean.

Antolakuntzak zerbitzuok eskainiko ditu; janaria, edari beroa eta asistentzia bidean, hamaiketako helmugan, dutxak Oiarde Kiroldegian eta bizikletak garbitzeko mangerak.

■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info



# Hurbilagoren gabonetako zozketako lehen sarituak agertu dira

**A**gertzen hasiak dira, Hurbilago Elkarteak antolatutako gabonetako zozketako lehen sarituak. Abenduan zehar, elkarteko kide diren establezimenduetan erosketak egin zituztenek parte har zezaketan, lau sari potolo

irabazteko aukera ematen zuen ekimen honetan. Abenduaren 31n, San Silvestre lasterketaren amaieran egin zen lau sarien zozketa. Lehen bi sarituak agertu dira.

Panasonic telebista: Saritua: Edurne Erasuskin.

Sukalderako ontziteria: Saritua: Iban Salsamendi (Txalaka fruta dendan egin zituen erosketak).

Gogoan izan, Hurbilagoren gabonetako zozketako lehen eta hirugarren sariak zenbakion jabeek tokatu zaizkie:

■ 1. saria: Bizikleta Coluer Sphera 260 Disc HD: 134.294 zenbakia (Esnaola lurrindegiko bezero bati egokitu zaio).

■ 3. saria: Tablet Airis Onepad 735: 134.650 zenbakia (Argilan dendako bezero bati egokitu zaio).



2. saria: Panasonic TX 42AS500E-42 telebista. Zenbaki saritua: 132.063. Saritua: Edurne Erasuskin (Marije arropa egin zituen erosketak).



4. saria: sukalderako ontziteria: ECCO 5 pieza: Zenbaki saritua: 156.571. Saritua: Iban Salsamendi (Txalaka fruta dendan egin zituen erosketak).

## Kiroldegiko abonua berritzeko garaia

**K**iroldegiko abonatuok, honez gero gutun bidez jasoko zenu-ten, adin guztiei zuzenduriko herriko eta Buruntzaldeko kirol instalazio eta zerbitzuen eskaintzaren berri ematen duen eskuorri eta gutun bana. 2015erako prezioak, ordutegiak, itxialdiak zehazten dira bertan. Prezio bereziak eskaintzen dira abonua familiarretan, baita 18 urtetik beherako, jubilatutako eta 25 urte baino gutxiagoko ikasleentzat.

Abonua duzuenok gogoan izan, laster kobratuko zaizuela. Adi, kirol zerbitzuetako arduradunen ohar honi: "Zure azkeneko abonua mota aldatu nahi izanez gero, kiroldegira agertu behar izan gabe, 2015eko urtarrilaren 25a baino lehen jakinarazten badiguzu nahikoa izango da. Adierazpenik ez, orain arte bezala jarraitu nahi duzula ulertuko dugu. Hala nahi izanez gero, zure urteko abonua helbideratu eta urtean bi zati-tan ordaintzeko aukera duzu".

Hauek dira oro har, 2015erako kirol instalakuntzak baliatzeagatik ordaindu beharko dena, Kiroldegiko ordutegia, itxialdi egunak...:

### Prezioak

#### Urteko bazkidetzak

- Banakako heldua: 158 euro.
- Banakako gaztea: 99 euro.
- Familiarra: 240 euro.

Oharra: abonoak norberaren herrian egin behar dira.

### Sarrerak

- 18 urtez gorakoak: 6 euro.
- 18 urtez beherakoak: 3,70 euro.

### Erreserbak

- Squasha: 5,20 euro.
- Frontoia (argia barne): 17,20 euro.
- Sauna: 3,70 euro.
- Giltza hautsi edo galtzea: 5,20 euro.
- Karneta hautsi edo galtzea: 3,50 euro.

### Itxialdiak

- Urtarrila: 1 eta 6. Uztaila: 2 eta

3. Abuztua: 1etik 23ra. Abendua: 24,25 eta 31.

### Ordutegia

Urtarriletik ekainera eta irailetik abendura:

- Lan egunetan: 7:00-12:30 eta 14:30-22:00 (igerilekua 21:00ak arte).
- Larunbatetan: 9:00-21:30 (igerilekua 21:00ak arte).
- Igande eta jai egunetan: 9:00-13:30 (igerilekua 13:00ak arte).

Udako ordutegia (uztaila eta abuztuko azken egunak):

- Lan egunetan: 7:00-13:00 eta 17:00-20:30.
- Larunbatetan: 9:00-13:00.
- Igande/jai egunetan: 9:00-13:00.

### Argibide gehiago

943 372 498 / kirola@usurbil.eus  
buruntzaldea.org/usurbil  
Kontu zenbakia:  
ES55 2095 5069 08 1064363541

### Tipi-Tapako sarituak

Zorioneko herritar gehiago. Hurbilago Elkarteak antolatutako urtarrileko pintxo festak ere beste bi saritu utzi dizkigu. Hilaren 4ko Tipi-Tapa amaieran, Bordatxo tabernan ospaturiko zozketako zenbaki sarituak, honako hauek dituzue:

- 150 euroko erosketa balea, 1.531 txartel zenbakiaren jabeak egokitu zaio (argazkian).
- 2 laguntzako afaria, 5.052 txartel zenbakiaren jabeak.

2015eko hurrengo Tipi-Tapa, otsailaren lehenean.



Urtarrilaren 4ko zozketa Bordatxon egin zen.

# Gaur ehundu, bihar erabaki

**Ostiral honetan, urtarrilak 16, "Jostunak" filma antolatu duzue Sutegin. Zertan datza dokumentala?**

Gure esku dago ekimenaren sorrera eta garapena kontatzen ditu, ekainaren 8an guztiok bizi izan genuen egun zirraragarria barne. Euskal Herriko ideologia ezberdinetako pertsona esanguratsuen bitartez, erabakitze eskubidearen inguruko hausnarketa ere egiten du.

Azken finean herritarrek josten hasitako istorio bat kontatzen du, izandako erronkak gogoratuz eta izango direnez hausnartuz.

**Urtarrilaren amaieran batzar ireki bat deituko duzue. Eguna zehaztu duzue? Zer landuko da bilera horretan?**

Eguna zehazteko daukagu eta jakinaraziko dizuegu aurrerago. Bilera horretan, 2015ean aurrera eramanez nahi ditugun ekimenez, ekainak 20an egingo dugun erronka nagusiaz eta Usurbilen eramango den dinamikaz hitz egingo dizuegu. Hala ere aipatu nahi genuke, hilaren 23an 19:00tan Aginagan eta Zubietan dokumentalaren emanaldia izango dela aldi berean. Batean Ludotekan eta bestean Kaxkapen.

**Urte berriarekin, egitasmo berriak irudikatu ohi dira. Gure Esku Dago dinamika ere lanean jarraituko du 2015ean. Zein asmo dituzue aurtengorako, ezer aurreratzetik?**

Aurtengo erronka nagusia ekainaren 20ko ekitaldi nazionala izango da: "Gaur ehundu, bihar erabaki". Eta Usurbil Gure Esku Dagoren programa ere norabide horretan zuzendua egongo da. Erronka honekin erabakitze eskubidearen inguruko eztabaida gizartzeratzen jarraitu nahi da, eta neurri batean, sakontzen hasi.

Honekin lotuta, herri mailan laster hasiko gara xehetasunak zabaltzen eta ekainaren 20ko erronkan parte hartzeko aukera zabaltzen. Aipatzeko puntu berezia, maiatzaren 9an jarria dugun mugarrria izango da, "Ehuntez Eguna". Aurrerago Gaztetxean eta Zaharren egoitzan ere emanaldiak egin nahi ditugu.

**Ostiraletan biltzen dira Potxoenean**

**Zerbait gehiago gehitu nahiko zenukete?**

Gure taldean eta honek egiten duen jardunean interesa duen herritar oro urtean zehar egingo ditugun dinamika ezberdinetan parte hartzera gonbidatu nahi dugu. Are gehiago, ostiralero Potxoenean arratsaldeko 18:30ean egiten ditugun bileretara gerturatzen ere animatu nahi ditugu herritarrek.

Bukatzeko adierazi nahi genuke, Gure Esku



"Jostunak" dokumentala eskainiko dute ostiral honetan Sutegin, 19:00etan. Aitzakia horrekin, Usurbilgo Gure Esku Dago lantaldekoekin izan gara solasean, dokumentalaz eta 2015erako erronkez.

## USURBIL GURE ESKU DAGO

**"Urtarrilaren 23an, Aginagako Ludotekan eta Zubietako Kaxkapen eskainiko dugu dokumentala"**

Dago mugimendua, dinamika herritarra, partehartzailea eta anitza dela, lan politikoa egin

nahi duen herritarren mugimendua. Urtean zehar egiten diren ekimen hauek egitea ez dira gure helburu bakarrak... Bidea egiteko urratsak dira, baina era berean erabakitze eskubidearen aldarria eta kontzientzia elikatu, zabaldu eta sustatzea da xedea. Helburuez gain bideak ere asko erakutsiko baitugu eta bizikidetzan ere ekarpen garrantzitsua izango delako ustea baitugu. Gaur ehundu, bihar erabaki.

## "Santixabelak 1984-2003" diaporama



Urtarrilaren 24ean arratsaldeko 6etan, Usurbilgo Sutegiko aretoan diaporama emanaldia egongo da. Iñaki Agirresarobek, oraingo honetan, "Santixabelak 1984-2003"

izenburuko diaporama eskainiko du. 40 minutuko iraupena du eta bertan urte tarte horietan bilduriko jaietako argazki bilduma eskainiko du.



# Eskubaloia albiste, garaipen berriengatik



Ane Irazabal eta Estitxu Berasategi Euskadiko Selekzioarekin aritu dira Kopan.

Usurbilgo eskubaloia taldeak pozarren, azken aldian lortu dituzten hainbat emaitzengatik.

## Euskal Ligara igotzeko bidean

Gipuzkoako Txapelketako sailkapeneko lehen bi postuetan dira, Usurbil KE-ak jubenil eta kadeteen mailan dituen lau taldeak; jubenil neska-mutilak eta kadete neska-mutilen taldeak. Eskubaloia taldeen bilgutetik aditzera eman dutenez, "hurrengo bi asteetan erabakiko da maila bakoitzeko titulua. Horietatik talde bat jada, jubenil neskena, matematikoki Gipuzkoako txapel-dun da igandeaz geroztik, Legazpiari irabazi eta gero, nahiz eta oraindik beste bi neurketa geratu. Azken bi partiduon ostean, 4 taldeok Euskal Ligara igotzeko jokatzeko aukera izango dute, eskubaloiko maila gorena oinarritzko mailetan".

## Usurbildarrak Euskal Selekzioan

Urtarrilaren 2tik 7ra Castellonen ospaturiko Espainiako Txapelketan parte hartu zuten Euskal Selekzioarekin, Usurbil Kirol Elkarteko hiru ki-deek. Emaitza bikainak eskuratu zituzten. Kadete nesken euskal selekzioak Espainiako Kopako txapel-dunorde amaitu zuen. Besteak beste, talde kideen artean zituzten usurbildarrei, Ane Irazabal eta Estitxu Berasategiri esker. Irazabalek 8 gol sartu zituen. Berasategik 19. Jubenil nesken

euskal selekzioak Espainiako Kopan podiumean amaitu zuen baita, hirugarren postuan. Golegileen artean, talderako bi puntu eskuratu zituen usurbildar bat; Leire Furundarena.

## 1. nazionaleko taldea ikustera autobusez

Senior mutilen 1. nazional mailako taldeak Trapagaranen jokatu du 17. jardunaldiko neurketa, urtarrilaren 24an, iluntzeko 18:45etan hasita. Hara joateko autobus zerbitzua antolatuko du Usurbil Kirol Elkartek. Egun horretan, 15:45etan irtengo da autobusa Oiardegi Kiroldegira aurretik. Prezioak; Usurbil K.E.-ko bazkideek eta 16 urtetik beherakoek doan. Bazkide ez direnek 5 euro. Izen emateko: 627 271 215 (Montse) edo usurbilke@gmail.com.

## Zubiria, Euskal Selekzioa-Txile neurketan

28-24 irabazi zuen Euskal Selekzio absolutuak urtarrilaren 6an Txileren aurka, Trapagaranen jokatu zuen eskubaloia partiduan. Euskal Selekziozko kapitain, usurbildar bat izan zuten; Asier Zubiria. Egun, C.D. Bidasoako atezaina dena.

## Errifa zozketa

7.503 izan da, Usurbil Kirol Elkartean errifa zozketako zenbaki saritua. Errifaren jabeak 2 lagunentzako afaria irabazi du Iruin sagardotegian.

## Eskubaloia partidak

### Urtarrilak 17, larunbata

9:15 Alebin neskak: Langile-Udarregi 5A  
 9:15 Alebin neskak: Udarregi 5B-Urumea B  
 10:15 Alebin neskak: Urumea A-Udarregi 6A  
 10:15 Alebin neskak: Udarregi 6B-Urnieta B  
 11:15 Infantil neskak:  
 Udarregi B Usurbil-Aiala D Zarautz  
 12:30 Infantil mutilak:  
 Udarregi Usurbil-Urola EK  
 13:45 Kadete neskak:  
 Usurbil K.E. "C"-Aiala A Zarautz  
 15:45 Kadete neskak:  
 Usurbil K.E. "A"-Zarazpe Lakatuak Pulpo  
 17:30 Jubenil neskak:  
 Usurbil K.E.-Ereintza Aguplast  
 19:30 Senior mutilak, 1.nazionala:  
 Ucin Aluminio Usurbil-Ford Mugarri Arrasate

### Urtarrilak 18, igandea

9:15 Alebin neskak:  
 Usurbil K.E. "A"-Sukia Elgoibar  
 10:30 Kadete mutilak:  
 Usurbil K.E.-Bankoa Elgoibar  
 12:00 Senior mutilak, 1. Territoriala:  
 Usurbil K.E.-CB Urola Laztimendi  
*Oharra: behin behineko ordutegiak. Aldaketak egon daitezke.*

## Futbola Haranen

### Urtarrilak 17, larunbata

10:00 Alebin mutilak:  
 Udarregi 5A-Udarregi 5B  
 Udarregi 6A-Landaberri 6B  
 11:30 Kadeteak:  
 Usurbil F.T.-Santo Tomas Lizeoa K.E.  
 16:30 Ohorezko maila:  
 Usurbil F.T.-Beti Gazte K.J.K.E.

### Urtarrilak 18, igandea

9:00-13:00 Futbol Eskola:  
 Usurbil F.T.-SD Euskalduna

**Pinturas  
lon**

KANPOALDEKO FATXADAK ETA  
 BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)  
 ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58  
 ionf81@hotmail.com

**Zuri  
arrain**  
 iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA  
 zuriarraiturgintza@gmail.com

**ESKAIOLA eta  
 PLADUR**  
 Joxean Elorza  
 699426042  
 USURBIL

**JUANTXO**  
 BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
 943 370 008

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisua salgai edo alokairuan...  
619212860/685228194

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan. 3 logela, egongela, jangela, komuna, gas naturala eta berogailuak. Tel. 619 212 860 / 685 228 194.

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukalde. 156.000 euro. 699 680 265.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukalde, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

borda dena 3.000 m lur saillean.  
665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## Alokairuan

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marius). Atzeritarrak ez. 674463942

2 logela alokatzen dira kontratu eta errolarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Pisu bat, 3 logela, bi komun, jangela, saloia, sukalde, dena kanpora begira, garajea (marra) eta trasteroa San Inazio kalean. 699421239 Jesus

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570 euro. 2 logela, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600 euro. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 eu-

ro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukalde, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra zuteko izango litzateke. 645720571

Honda Accord, 1.600 euro. Egoera onean. 696 50 67 39. 163.000km, gasolina, 5 ate, mailetero handia eta aire egokitua.

2 marra dituen, aparkalekuak alokatu nahi ditut. Kale Nagusiaren hasieran. Bizkarre auzoan. 70 euro hilabetean. 696 014 585.

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Neska bat eskaintzen da interna moduan lan egiteko, pertsona helduak zaintzen. Txosten eta agiriekin. Tel. 622 487 879.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsonek heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Herriko emakume euskaldun bat, oso informe onekin, arratsaldetan 2-3 orduz, haurrak edo helduak zaintzen lan egiteko eskaintzen da. 687 348 223

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titularekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Tel. 608 299 579.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papela. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat.

Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papela egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titularekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gaztee-



**Zorionak Xare!** Urtarrilaren 9an 10 urte bete dituzu. Muxu potolo bat Aginagako ikasle eta irakasleen partetik.

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: astelehena, eguerdiko 11:00etan  
erredakzioa@noaua.com

Hurrengo NOAUA! urtarrilak 23. Bidaltzeko azken eguna: urtarrilak 19.



kin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketaren eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketaren edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konponitzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan espe-

rirentziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nago. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna.

(647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldean. Irakaskuntzan diplomaturia. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketaren. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketaren eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrek ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Preziosa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko.

Matematika klaseak, maila gutxieta, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

#### BESTELAKOAK

Ezkontzako eraztun bat aurkitu dute udaltzainek. Conchi 1968/09/12 datarekin. Norbaiti falta bazaio udaltzaingoan da.

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Atxegaldeko Erdiko kalean katu bat galdu da. Emea eta marroi oso argia, Sasi du izena eta argala eta txikitxo da. Norbait aurkituko balu eskertuko genuke abixatzea, eskerrik asko. 679132707

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzue, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Tel. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkontzetan, festetan... Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 / djlarra@usurbil.com

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskalategia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak Urtarrilak 15 - urtarrilak 25

**Osteguna 15** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 16** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

**Larunbata 17** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 18** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 19** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteartea 20** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteazkena 21** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Osteguna 22** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 23** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 24** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE. Latxumbe berri, 11. Hernani. 943552087 22:00 - 09:00

# Agenda urtarrila

## 16 ostirala

- "Jostunak" dokumentalaren proiektzioa 19:00etan Sutegin.
- Kontzertu gaua gaztetxean Le Cercle des Mallissimalistes, Joseba Irazoki, Sofa. 21:30ean.

## 17 larunbata

- Alkartasuna kooperatibako egutegia-ren aurkezpena 11:00etan Potxoenean.
- La Esclusa antzezlana gaztetxean, 22:00etan. Sarrera: 3 euro.

## 18 igandea

- Marisa Alejandro eta gainerako epai-tuei elkartasuna adierazteko agerraldia 12:30ean Mikel Laboa plazan.

## Gure Esku Dago giza kateari buruzko dokumentala, ostiral honetan Sutegin



Arratsaldeko 19:00etan hasiko da dokumentalaren proiektzioa.

azko ekainaren 8an giza kate erraldoi batek lotu zituen Durango eta Iruñea, eta giza kate horren atzean ziren pertsonen hitzak batu dituzte 'Jostunak' dokumentalean. Abenduaren erdialdean aurkeztu zuten ikusentzunezkoa eta orain herriz herri hasi dira proiektatzen. Ostiral honetan, Sutegin ikus ahal izango dugu, 19:00etan hasita.

'Jostunak' dokumentala Eriz Zapirainek zuzendu du eta gidoia Zapirain berarena eta Ion Telleriarena da.

Bi hari nagusi ditu ikusentzunezkoak. "Alde batetik, herritar anomimoek dute protagonismoa eta ondo azaltzen du nola joan zen zabalzen giza katearen dinamika, proiektu xume izatetik ekainaren 8an 150.000 herritar biltze-

raino". Dokumentalean ikusiko denez, hasierako beldurrak eta zalantzak islatzen dira, eta nola joan zen handitzen eta aurreikuspenak gainditzen herri bakoitzeko batzarretan lehenik, gero Bilboko La Casillako ekitaldian eta azkenik ekainaren 8ko giza katean bertan.

Bestetik, dokumentalean hainbat pertsonalitate ezagunek gogoeta egiten dute erabakitzeko eskubideari buruz. "Eztabaida horretan hainbat galdera proposatzen dira: erabakitzeko eskubidea abertzaleen kontua ote den, zer den lehendabizi legea ala herritarren borondatea? Gainera egungo Euskal Herriko lurralde desberdinetako egoera eta erabaki esparruen inguruko eztabaida ere deskribatzen ditu".

- Urtarrilak 16 ostirala.
- 19:00etan, Sutegin.

### Datozenak

#### Larunbat honetan, Alkartasuna Kooperatibaren egutegi aurkezpena

Jakoba Errekondo paisajistaren eskutik, urtarrilaren 17an, goizeko 11:00etan Potxoenean. Errekondok "ilargiaren garrantzia eta bere zikloak azalduko ditu, uzta oparo bat lortzeko hainbat gomendio emanaz". Hitzordura gerturatzeko eman izena aurretik, doan, 943 361 114 telefono zenbakira deituta edo alkartasuna@usurbil.com helbidera idatzita.

#### "La Esclusa" antzezlana gaztetxean

"16 urte preso, biharamunean aske geratuko da, kondizionalarekin. Espetxeko bere azken gaua da La Esclusaren eszenatokia, kanpoan eta barruan beldurrez eta itxaropenez urtzen diren ordu luze horiek. Gau horretan argitara ateratzen dira 16 urtez bahitutako bizipenak".

Urtarrilak 17 larunbata. 22:00etan, gaztetxean. Sarrera: 3 euro. Aktorea: Ana Plaza.



Ana Plaza da bakarrizketaren protagonista.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**ELORZA**  
 OBRAK ETA  
 ERREFORMAK S.L.

**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



# PSU

serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

GOLDWELL  
ELUMEN

il  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i

mistoa

Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

# GOIEGI

Jatetxea- Restaurante



30€

**ARDO-DASTATZE-AFARIA!**  
URTARRILAREN 31, LARUNBATA  
(erreserba ezazu!)

(plater bakoitza ardo ezberdin batekin uztartutako afaria)

Afarian zehar, enologoak, ardo bakoitzaren xehetasunak eta plater bakoitzarekin uztartzearen arrazoiak azalduko ditu



**943 36 14 04**

Afaria 5 plater ez osatua izango da, 4 gazi eta gozo bat.  
Bi sarrereko, arrain bat, haragi bat. Azkenburuko gozo bat!



[www.goiegi.com](http://www.goiegi.com) Irubide bailara 1, LASARTE-ORIA

# noau euskararen aterpe

*Bazkideok egiten dugu posible*

Astekaria, noau.com, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN  
ZAITEZ!**  
eta opari eder  
hau eskuratu!



Bazkideza: urtean 36 euro.  
Informazio gehiago: 943 36 03 21  
elkartea@noau.com



# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 3ra  
**TXOTX-GARAIA**

Hernanitik autobus zerbitzu propioa

Astelehenetan **ITXITA**

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

📞 **943 36 12 29**



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)



# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • 📞 **943 55 69 81**



## SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39

**USURBIL**

Sagardotegiko erreserbak:

**943 37 39 95**

(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

## SAGARDOTEGIA

# aginaga

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA



**943 36 67 10**

Aginaga, **USURBIL** [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

*Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!*



*%100 bertako sagarra*

Tel: **943 365 031**

Santuenea